

Euskal AEko eraikuntza sektorea %4,5 gehitu zen 2017ko bigarren hiruhilekoan

%6,2ko gehikuntza 2017ko lehen sei hiletan


Eustaten datuen arabera, 2017ko bigarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %4,5 nominala gehitu zen Euskal AEko eraikuntza jardura.

Hobekuntza Etxegintzari zor izan zitzaion, urte arteko %6,4ko gehikuntza; Obra zibilean %-8,5.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2017ko bigarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %0,1 jaitsi zen, lehenengoaren aldean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturari buruzko indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



2017ko bigarren hiruhileko jardura aurrekoarekin alderatuz gero, Obra Zibilak %+0,5; Etxegintzak %-0,2.

Euskal AEko eraikuntza %6,2 gehitu zen 2017ko lehen seihilekoan 2016koaren aldean.

Sektoreko enplegua %0,5 jaitsi zen 2017ko bigarren hiruhilekoan lehenengoaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren koiunturaren Indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). II/2017

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	II 17/II 16	At/At-1 (1)	II 17/I 17	I 17/IV 16
Produkzioaren Indizea	4,5	6,2	-0,1	3,4
Eraikuntza	6,4	8,8	-0,2	4,3
Obra zibila	-8,5	-10,8	0,5	-3,3
Landunen Indizeak	-	-	-0,5	-0,1

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako IIndizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62